

SOLIDARITATEAREN ALDEKO ORRI-MARKATZAILEAK



Save the Children



XI. edizioa
Liburu
solidarioaren
eguna

Proposamen Didaktikoak

DOSIERRA


Gida didaktiko honetan, gerragatazkan bizi diren haurren egoerari buruzko informazio-dosier bat eta hezkuntzaziklo guztietan ikasgelan lantzeko proposamenak jaso ditugu. Irakasleek egindako lana osatzea eta elkartasunaren, errespetuaren eta lankidetzaren balioen hezkuntzan laguntzea da azken helburua, haurrek munduan bizi duten errealitatea argiago erakusteko.

Zuzendaria:
Marisol Paniagua

Lankidetzaz:
M^a Luisa Ortega del Val

Artea eta maketazioa:
Germán Gullón

Argitaratzailea:
Save the Children España



SARRERA

2018-2019 ikasturtean, «Elkartasunaren aldeko orri-markatzailearen» XI. edizioa ospatzen ari gara herrialdeko ikastetxeetan, Eskola Liburuaren Egunaren barnean, bi helburu hauekin:

- Gatazka-eremuetan bizi diren haurren hezkuntzak eta ikastetxeak haurrentzat beti toki seguruak izateak duten garrantziari buruz sentiberatzea.
- Gatazka armatuen biktima diren adingabeei hezkuntza, biziraupena eta babesa bermatzeko proiektuetan lan egiteko aukera emango diguten funtsak biltzea.

Guztiok imajina dezakegu zeinen gogorra izango litzatekeen gure bizitza gerra-egoeran biziz gero, baina gai al gara imajinatzeko nola bizi duen egoera hori ume batek, goizetik gauera bere bizitza zergatik aldatzen den ulertzen ez duen ume batek?

Dosier honetan, haur horien egoera ulertzen laguntzeko zenbait datu ematen saiatuko gara.

HAURRAK GATAZKA-EGOERETAN

Zer esan nahi du gerra batean haur izateak?

Haur bat gatazka baten biktima izateak ez du esan nahi soilik gerraren ondorioz bere herrialdea utzi behar izan duela edo bonben azpian bizi dela; bere haurtzaroa ere kendu zaiola esan nahi du. Haurraren mundua hankaz gora jartzen du gerrak. Haurrarentzat halako segurtasun bat adierazten duen oro suntsitzen du gerrak: etxeak suntsitzen ditu, edateko ur garbia edo oinarrizko elikagaiak eskuratzeko aukera zailtzen dio komunitateari, eskolara joateko aukera kentzen dio, itxita dagoelako edo harako bidaia arriskutsua izan daitekeelako; ospitaleak gatazkaren biktima direnekin gainezka egotea esan nahi du, edota gurasoak modu erregular batean lanera ezin joan izatea eta, beraz, diru-sarrera erregularrik ez izatea...

Horrelako alderdiek bultzatuta, beren bizitza salbatzeko ihes egitera behartuta sentitzen dira, kasurik onenetan, gurasoekin batera, eta, zenbaitetan, bakarrik; arriskuz betetako bide ezezagun bati ekiten diote horrela, eta muturreko indarkeriaren biktima bihurtzen dira askotan.

Errefuxiatu adingabeena da kolektiborik zaugarrienetakoa. Bada datu esanguratsu bat, horri dagokionez: errefuxiatu ez den haur batekin alderatuta, **eskolara ez joateko** bost aldiz arrisku handiagoa du haur errefuxiatu batek. Zorte handiena dutenak leku seguruetara iritsiko dira, baina han ere ez dute bizimodu erraza aurkituko. Horrelako egoeretan, **babeslekuaren barneko babesleku bihurtzen da eskola**: itxaropena berreskura dezakete eskolan, eta, bereziki, alaitasuna bizi dezakete berriro. Haur izaten hasiko dira berriro.

Arazoaren magnitudea ulertzen lagunduko diguten zenbait datu



357 Gatazka-eremuetan bizi dira 357 milioi haur. Horrek esan nahi du sei haurretatik batek indarkeria jasateko arrisku handia duela.

60 Munduan, lekualdatutako 60 milioi pertsona baino gehiago daude, eta 18 urtetik beherakoak dira horien erdiak baino gehiago.

28.300 Egunero, 28.300 pertsonak beren etxeetatik ihes egin beharra dute, gatazken eta jazarpenen ondorioz.

17 Pertsona batek batez beste errefuxiatu gisa egiten duen denboraldia 17 urtekoa da. Hau da, haurtzaro osoa.



3 Errefuxiatuen erdia baino gehiago hiru herrialde hauetakoak dira: Siria, Afganistan eta Hego Sudan.

8 Siriarren erdiak, gatazkan 8 urte igaro eta gero, lekualdatuta bizi dira, beren herrialdearen barnean edo handik kanpo.

Haur izateko munduko tokirik txarrenetakoa

8. urtea du Siriako gerrak, eta ez dirudi irtenbiderik aurkitu zaionik. Egoera larria dute oraindik. 11 milioi siriarrek beren etxeak utzi dituzte, eta ia 3 milioi sarbide zaileko inguru setiatuetan bizi dira; hurrek janaria, ura eta laguntza medikoa behar dituzte. Hirutik bik maite zuten norbait galdu dute, beren etxea bonbardatuta ikusi dute, edota lesioak jasan dituzte. Gatazkan ari diren talde armatuek eskolak eta instalazio medikoak bonbardatzen jarraitzen dute, bai eta zibilei eraso egiten ere. Haurren belaunaldi bat gerra ez den beste egoerarik ezagutu gabe ari da hazten, eta beren hezkuntza eta etorkizuna galtzen ari dira.



GURE LANA

2017an, hainbat tokitan esku hartu zuen zuzenean Save the Children erakundeak, mundu osoko 43 gatazkatan hainbat ekimen gauzatu; haurrak babestea zuen xede, haien eskubideen alde eginez eta egiaz haur izaten jarrai zezaten lagunduz. Emaileri eta erakundeei esker egin ahal izan zen lan hori, baina baita beren ahaleginaren eta konpromisoaren bidez beste haur batzuei laguntzen dieten haurrei esker ere, horixe ahalbidetzen baitute, esate baterako, ikastetxeetan gauzaten ditugun gure programek. **Ikasturte honetan, 2019an zehazki, 100 urte beteko ditugu, eta erronka handi bat ospatzeko baliatu nahi dugu urtebetetze hori: milioi bat haurrek gerrak beren ametsak ostu dizkieten beste milioi bat haurri laguntzea.** Lortuko dugu, ziur gaude horretaz.

Siriako gerraren kasuan, lekualdatutako eta errefuxiatutako haurrei laguntzen diegu, "Haurren lagun diren esparru seguruetan", Jordanian, Libanon, Iraken, Egipton nahiz Sirian bertan. Laguntza psikosoziala ematen zaie leku horietan, eta batez ere gertaera traumatikoen lekuko izan diren haurrei askotariko jarduerak egiteko aukera ematen zaie, beren larritasuna gaindi dezaten eta berriro haur izaten has daitezten.

Zaatariko errefuxiatuen esparrua


2012ko uztailaren 28an sortutako esparrua da, Jordaniak Siriarekin duen mugatik gertu dagoena, gerratik ihesi zihoazen siriarentzat behin-behineko irtenbide gisa eratu. Urte hauek guztiak iragan ondoren, hasiera batean behin-behineko irtenbide gisa jo zena 80.000 pertsona baino gehiago biltzen dituen giza kokaleku bihurtu da; jada kanpadendetan luzaroago jarraitu ezin zuten, gaur egun behin-behineko babesguneetan bizi dira, antolatuxeago, nahiz eta nazioarteko elkartasunaren eta gobernu kanpoko erakundeen mende dauden.

Zaatariko bizimodua ulertzeko kontuan hartu beharreko zenbait alderdi.

5,3 Esparru honek 5,3 km²-ko azalera du.

1/5 Bost etxetatik batean emakumea da buru.


80 Astean 80 haur jaiotzen dira batez beste, eta 1.400 mediku-kontsulta izaten dira.



Ez dute urik, eta argindar-hornidura eten egiten da tarteka.


21.400 21.400 haur daude eskolatuta, 31 eskolatan eta 58 komunitate-zentrotan.

0-45 Temperatura-tarte zabala dute: 0 °C neguan eta 45 °C udan.



Zaatariko gure lana

Save the Childrenen Jordaniako atala lanean ari da kanpalekuaren sorreratik, haurren eta gazteen bizi-kalitatea eta aukerak hobetzeko asmoz, eta, horretarako, hezkuntza, osasuna eta elikadura, babesa eta haurren arteko pobrezia erantzuteko zerbitzua barnean hartzen dituzten programak garatu ditu.



HEZKUNTZA

Esparrura iritsi diren haur errefuxiatuentzat nahiz esparru horretan jaiotakoentzat, funtsezkoa da hezkuntzan sarbidea izatea, bai etorkizunari begira izan ditzaketen aukerak kontuan hartuta eta bai haien ongizate emozional eta psikologikorako. Ohitura batzuk hartzea, ikastea eta errefuxiatuen esparruan edo horrelako gune batean inguru seguru eta abegitsuak izatea lagungarri da haurren egonkortasun emozionalerako.

Gure helburua haien ikaskuntzako emaitzak eta ongizatea hobetzea da. Horretarako, **12 zentro** abiarazi ditugu harrerako komunitateetan, haurrei hezkuntza eta arreta-zerbitzua eman ahal izateko. **5.000 neska-mutil** ibiltzen dira urtero Hezkuntza Goiztiarreko Zentroetan.



OSASUNA ETA ELIKADURA

Amek, haur jaioberriek eta bost urtetik beherako neska-mutilek zainketa bereziak behar dituzte. Horregatik, gure osasun- eta elikadura-programen ikuspegia horiei zuzentzen zaie bereziki, zaugarrienei, zehazki. Edoskitze naturalerako jardunbide hobeak sustatuz eta haurdun dauden emakumeei nahiz amei orientabidea eskainiz, esparruan haurren arteko heriotza-arriskua murriztea lortu dugu.

1.035 haur eta 165 emakume haurdun eta bular-emaile artatu dira urtebetean, desnutrizioagatik. Osasunaren esparruan, klinikako 96 profesional eta komunitateko boluntario prestatu ditugu errefuxiatuen esparruan, desnutrizio-kasurik hautemateko. Haur eta gazteentzako 17 elikadura-zentroren jarduera sustatu dugu, eta haurdun diren edo bularra ematen ari diren 43.000 emakume artatzen dira berorietan, kanpalekuen eta harrerako komunitateen barnean. Egunero, ogia banatzen diegu **74.000 errefuxiatuari.**



HAURREN BABESA

Jordanian, haurrak babesteko Save the Childrenen programen bidez, luze iraungo duten aldaketak lortzeko ahalegina egiten da, haurrak seguru eta babestuta egongo direla ziurtatzeko. Haur horien inguruabarretara eta beharretara egokitutako programen eta ekintzen bidez egiten dugu hori.

Errefuxiatuen esparruko gazteei hezkuntza-aukerak eskaintzeko, **3 harrera- eta jarduera-etxe** babesten ditugu. Horrez gain, **haurren 38 ezkontza saihestu dira**, sentiberatze-saioen bidez.

JARDUERAK

Ikastetxeek Liburu Solidarioaren Egunarekin bat egitea nahi du Save the Childrenek, «Elkartasunaren aldeko orri-markatzailea» kanpainaren bitartez. Mundua aldatzeko sentitzen den gogo da elkartasuna, mundua bidezkoagoa izan dadin: sentimendu hori haur eta gazteei helaraztea norberarekin ongi egoteko abileziak eraikitzen laguntzea da, eta inguruan dugunarekin konpromisoa hartzea.

Irakurketak errealitatearekin lotzen gaitu, sendotu beharreko balioekin, emozioekin. Haur eta nerabeek esperientziak bizi dituzte ipuinen eta liburuen bitartez, abileziak garatzen dituzte, beste batzuek sentitzen dutena ezagutzen eta entzuten dute, eta haiek sentitzen dutena sentitzen hasten dira, emozioei izena jartzen diete, eta gizakion arteko bizikidetzan funtsezkoak diren uneak bizi dituzte.

HELBURUAK

- Hezkuntza-esperientzia eraldatzaileak sustatzea ikastetxean; giza eskubideak eta haurren berariazko eskubideak babesteko jardueretan parte hartzeak kanpora begiratzen laguntzen digu.
- Irakurketa bultzatuz, mundu bidezkoago bateko kide izateko emozioa eta inplikazioa piztea.

EDUKIAK

- Elkartasuna, mundua, gerra-gatazka
- Ideiak, mezuak, ikastetxe seguruak
- Giza eskubideak eta haurren berariazko eskubideak
- Iheslari siriarrak

ESKUMENAK

- Pertzepzioa eta aurkikuntza
- Entzutea eta ulertzea
- Azterketa eta gogoeta
- Ahozko eta idatzizko adierazpena, eta adierazpen artistikoa
- Sormena
- Talde-lana eta adostasuna
- Norbanakoaren eta taldearen erantzukizuna



METODOLOGIA

- Adinen araberako jarduerak egingo dira, entzutea, ulermena, pertzepzioa, talde-lana eta aurkikuntza sendotuz.
- Liburuen eta ipuinen irakurketa erabiltzen dugu giza garapenerako eta azterketa eta gogoeta konstruktiboa eta sortzailea egiteko euskarri gisa.
- Parte-hartzea, norbanakoaren eta taldearen inplikazio solidarioa eta adierazpen sortzailea (horma-irudiak, orri-markatzaileak, marrazkiak, sormen literarioa) dira emozioak transmititzeko eta esperientziak bizitzeko euskarriak.

EBALUAZIOA

Proposamen didaktikoa amaitutakoan, jarduerak izan duen emaitzari buruzko iritzia emateko proposatzen diegu irakasleei eta ikasleei, eta egoki deritzoten dokumentazioa Save the Childrenera igortzeko.



Irakurketa eta elkartasuna batzeak kanpora begiratzera behartzen gaitu, bestearekin identifikatzera, guztiok modu baketsuan eta justuan bizitzeko eskubidea dugula jakitera. Hezkuntzak oso zeregin garrantzitsua betetzen du aldatzeko gaitasunean eta abileziak eta sentimenduak azaleratzeko orduan, haur eta gazteak beren buruekin ondo senti daitezen, haien onurarako eta gu guztion, gizadiaren eta planeta osoaren onurarako.

Laguntza humanitarioko eta lankidetzako erakundeok pertsonen, familien, hezkuntzako profesionalen, estatuen eta gizarte zibil osoaren beharra dugu, inplikazioaren eta lankidetzaren bidez giza eskubideak eta haurren berriazko eskubideak babesteko.



«GURE LIBURU SOLIDARIOA: MUNDU HOBE BAT»



GURE PROPOSAMENA

Liburu solidario bat egitea ikasgelako, zikloko edo etapako hurrekin. *Mundu hobe bat* izeneko liburu bat.

NOLA EGIN

1. Ezagutu ipuinak

Etetik ipuinak eramateko eskatuko diegu hurrei, parte-hartzaileen artean trukatzeko eta partekatzeko. Hurrek ipuinak aztertuko dituzte, eta, irakasleak emandako jarraibideekin, gauzak bilatuko dituzte: animaliak, gorputz-atalak, lagunak, fruituak, zapatak, kapelak, janariak, jostailuak... Azkeneko aginduan, irakasleak izugarri gustatzen zaien zerbait bilatzeko eskatuko die ikasleei... hobeto egoteko, mundu hobe izateko zerbait: beroki bat, ardi bat, pilota bat, pastel bat...

2. Osatu mundua koloretako kartoi meheekin

Irakasleak 20x20 cm-ko koloretako kartoi meheak egingo ditu, eta munduaren itxurako zirkulu handi bat marraztuko du haietan. Ondoren, koloretako kartoi mehe bat emango dio parte-hartzaile bakoitzari. Zirkuluaren barruan, parte-hartzaile bakoitzak aukeratu duena idatziko du letra larriekin; ondoren, irakasleak idatzitako hitza imitatuko dute hurrek margoekin, edo beraiek idatziko dute.

3. Eman forma Mundu hobe bat liburuari eta orri-markatzaileei

Irakasleak kartoi mehean egindako munduak sormenez lotuko ditu: orrialde bat erantsiko die hasieran, horma-irudi bat egingo du, kate bat osatuko du... Hurrek koloretako zirkuluak marraztuko dituzte orri-markatzaileetan, mundua imitatuz, eta «mundu hobe bat» esaldia idatziko dute.

BEHAR DUZUNA

Ipuinak, 20x20 cm-ko koloretako kartoi mehe bana parte-hartzaile bakoitzarentzat, arkatz markatzaile lodiak, margoak eta orri-markatzaile solidarioak.

IRADOKIZUNAK

Egindako lanak ikastetxean erakusgai jar daitezke, Haur Hezkuntzako etaparen erakusketa modura.

AMAITZEAN

Batera irakurriko dute parte hartzaile guztiek Mundu hobe bat liburua.

«IRAKURTZEAK ONDO SENTIARAZTEN NAU»



GURE PROPOSAMENA

Irakurketari buruzko gogoeta egitea, berdintasunerako bitarteko den heinean, eta ondo zergatik sentiarazten gaituen adieraztea.

NOLA EGIN

1. Aukeratu ipuin bat etxean

Parte-hartzaileek ongi sentiarazi dien ipuin edo liburu bat aukeratuko dute, eta eskolan erakutsiko dute.

2. Aya ezagutzen

Irakasleak Aya izeneko neska bat aurkeztuko die; 7 urte ditu, eta siriarra da. Oso txikia zen bere herrialdean gatazka hasi zenean, eta ezin izan da inoiz eskolara joan. Haurrek Ayaren historia ikusteko:



[savethechildren.es/trabajo-ong/
educacion/educacion-y-conflictos](http://savethechildren.es/trabajo-ong/educacion/educacion-y-conflictos)

3. Talde-lanean

Irakasleak hiru ikasleko taldeak egingo ditu; Ayaren historiari buruzko gogoeta egingo dute, eta eskolan hasi ondorengo bitzta nolakoa den pentsatuko dute. Eskolan erakutsitakoen artetik Ayari hobeto sentiaraziko dion liburu bat edo ipuin bat aukeratzeko eskatuko die ikasleei, eta gainerako ikasleei azaldu beharko diete zergatik uste duten liburu edo ipuin horrek lagundu egingo diola.

4. Orri-markatzaileak apaintzen

Jarduera amaitzeko, orri-markatzaile solidarioak esaldi honekin apainduko ditugu: «Irakurtzeak ondo sentiarazten nau».

BEHAR DUZUNA

Ipuinak, ordenagailua, orri-markatzailea, margoak eta arkatz markatzaileak.

IRADOKIZUNAK

Orri-markatzaileak familiei eskainiko dizkiegu, Save the Childrenek gatazka armatuetan ikastetxe seguruak izateko eta Aya bezalako haurrei laguntzeko proiektuak babesteko.

AMAITZEAN

Galdera honi erantzungo diote haurrek: irakurtzeak ondo sentiarazten zaituzte?

«IRAKURTZEA MUNDURA LEIHO BAT IREKITZEA DA»



GURE PROPOSAMENA

Irakurketaren eta idazketaren bitartez, haurrek beren emozioak entzutea eta adieraztea, pertsonen balioa sentituz.

NOLA EGIN

1. Bizia emango diegu liburuei

Parte-hartzaile bakoitzak, bezperan, gustuko duen liburu bat aukeratuko du liburutegian edo etxean, eta liburuaren barnean begiratzen saiatuko da, ondorengo galdera hauei erantzunez: zer sentituko luke liburu honek bizia izango balu? Zer amestuko luke? Zer beharko luke? Parte-hartzaileek ideia-jasa egingo dute erantzunekin.

2. Taldean lantzeko kontakizuna

5 parte-hartzaileko taldeak egingo ditu irakasleak. Talde bakoitzak *Recogiendo los pedazos* irakurriko du, Save the Childrenen webgunean www.savethechildren.es/publicaciones/recogiendo-los-pedazos (txostena ingelesez), eta bideo hau ikusiko du: [Mi día a día en el campo de refugiados de Zaatari](#). Talde bakoitzak 10 minutu izango ditu kontakizun bat hasteko, *Leiho bat mundura* izenburuarekin: entzun dutenaren interpretazioa egingo dute, eta galdera hauei erantzungo diete: zer sentitzen dute gatazkaren biktimak diren haur siriarrak? Zer behar dute haur siriarrak? Zer amesten dute gatazka-egoera batean bizi diren haurrek? Taldeek kontakizun guztiak aurkeztuko dituzte, eta horma-irudi batean jarriko dituzte ikusgai, ikasgelan.

3. Orri-markatzaile solidarioak apainduko ditugu

Parte-hartzaile bakoitzak, jardueraren amaieran, orri-markatzaileak apainduko ditu, esaldi honekin: «Irakurtzea mundura leiho bat irekitzea da».

BEHAR DUZUNA

Eskolako liburutegira edo udal-liburutegira joan behar duzu; *Recogiendo los pedazos* argitalpena, orriak, bolaluma, horma-irudia egiteko kartoia meheak, kola eta orri-markatzaile solidarioak.

IRADOKIZUNAK

Irakasleak ozenki irakur dezake *Recogiendo los pedazos* artikulua, talde guztiek entzun dezaten; parte-hartzaileen adinaren arabera, zerbait kendu dezake, edo garrantzitsua iruditzen zaion zerbait azpimarratu, hobeto ulertzeko eta sentiberatzeko.

AMAITZEAN

Galdera honi erantzungo diote haurrek: zer ikusi duzu mundura leihoa ireki duzunean?

«LIBURUAK MEZULARIAK DIRA»



GURE PROPOSAMENA

Liburuek ideiak garraiatzen dituztela ikusaraztea, irakurketak denboran zehar eramaten baitu pertsonaren pentsamendua.

NOLA EGIN

1. Talde-lanean

Hiru parte-hartzailez osatutako taldeak egingo dira; pertsonen pentsamendua denboran zehar eraman duten bi liburu pentsatuko ditu talde bakoitzak, eta besteei adieraziko dizkie.

2. Gure helburua mezu bat eramatea da

Liburu Solidarioaren Egunean, honako mezu hau zabaldu nahi dugu: «*Gatazka armatuetan bizi diren haurrek babestuta sentitu behar dute, eta beren bizitzak berregiten hasteko eskola seguruak izan behar dituzte*». Irakasleak adin bakoitzerako interesgarriak iruditzen zaizkion hamar liburu aukeratuko ditu jarduera bakoitzaren aurretik; talde bakoitzari liburu bat emango dio, eta talde bakoitzak mezuak bilatu behar ditu liburuetan, haurrek indarkeriaren eta gatazkaren aurrean babestuak izateko eta bizimodu goxoa bermatuko dieten eskola seguruak izateko dituzten eskubideen aldeko mezuak.

3. Ideiak bateratzea

Cada grupo escribe los mensajes realizados en los marcapáginas y los ponen en común.

BEHAR DUZUNA

Liburuak, bolalumak, orriak, orri-markatzaileak, arkatz markatzaileak.

IRADOKIZUNAK

Irakasleak jarduera egiteko liburuak aukeratuko ditu.

Egindako orri-markatzaileekin dirua biltzea proposatuko diegu ikasleei, Siriako gatazkan eskola seguruen proiektuak babesteko.

AMAITZEAN

Galdera honi erantzungo diote haurrek: gure mezuek beren helburua bete dute?

IRAKURTZEAK IRATZARRI ETA MUNDUARI BEGIRA JARTZEN GAITU ERAKUSKETA



GURE PROPOSAMENA

Ikastetxean erakusketa bat egitea, talde edo ikasgela bakoitzak egin duen liburu sortzailea erakusgai jartzeko, *Munduak iratzarri egin behar du* izenburupean.

JARDUERA EGITEKO

- Ikasgela bakoitzean, ikasleek mundua iratzar dezaketen esaldiak bilatuko dituzte liburuetan.
- Partekatu beharreko testuak aukeratzekoan, garrantzitsua izango da mundu bidezkoago baten alde parte hartzeko helburua kontuan izatea, duintasuna, giza eskubideak eta haurren berariazko eskubideak guztiontzat beteko diren mundu baten alde parte hartzeko helburua, hain zuzen.
- Ikastalde bakoitzak bere ikasgelan egingo du lan, sormenez lan egiteko eta egin duena erakusteko.
- Hezkuntza-elkarte guztiarentzat erakusketa irekia egiteko toki egoki bat bilatuko da ikastetxean.

PRESTATU

Liburu sortzaile bat ikasgela bakoitzeko, eta erakusketa egiteko toki egoki bat.

KONTUAN IZAN

Ikasleen inplikazioa eta jardueraren aurreko motibazioa funtsezkoak dira proposamena behar bezala garatzeko.

ESKERRIK ASKO ZUEN PARTE-HARTZEAGATIK

«ELKARTASUNAREN ALDEKO ORRI-MARKATZAILEAK» PROPOSAMENAREKIN LOTUTA MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK



Zenbat orri-markatzaile jasoko ditut haur bakoitzeko?

Ikasle bakoitzak 5 orri-markatzaile dituen txantilo bat jasoko du, eta atzeko aldetik apaindu ditzakete, haurrak edo irakasleak erabakitako gai edo zioarekin.

Zenbat orri-markatzaile apaindu behar ditut?

Apaindutako orri-markatzaileen kopurua ikasleak lortzen dituen irakurle solidarioen kopuruaren arabera izango da, haiek erosiko baitute ikasleen ahalegina eta sormena.

Zenbatean saldu behar dugu orri-markatzailea?

Salneurria librea da, ikastetxeak erabaki dezake, edo ikasleek erabaki dezakete zenbatean saldu nahi duten beren lana.

Parte-hartzaile gehiago izanez gero, material gehiago eska dezakegu

Bai, material gehiago eskatzeko aukera duzue, helbide elektroniko honetan, diadellibro@savethechildren.org, edo telefonoz. Egun gutxi batzuetan ikastetxean izango duzue.

Ikasleen dirua jasotzen dudanean, nola emango diot Save the Childreni?

Babesleen dirua jaso ondoren, ikastetxeak kontu honetan sartuko du dirua:

BANCO SANTANDER
ES24 0049 1837 5829 1024 8925

Transferentzia bidez edo dirua zuzenean sartuz egin daiteke.

Dirua eskudiruan sartzean arazoak sor daitezke?

[Bankuaren bulegoaren arabera](#). [Joan aurretik, gure webgunea kontsultatzea gomendatzen dizuegu, dirua sartzeko orduan bankuak ezetz esatea saihesteko lagungarri izan daitezkeen zenbait aholku eta agiri baititugu.](#)

Jasotako dirua beste banketxe batean sar dezakegu?

Baditugu kontuak beste banketxe batzuetan; dirua beste nonbait sartu nahi baduzue, jar zaitezte harremanetan Ikastetxeetako Programen Sailarekin. Dirua sar dezakezuen beste kontu batzuk emango dizkizuegu, baita jarraibideak ere.

Garrantzitsua da diru-sarrera egiten duen ikastetxearen izena jartzea?

Bai, oso garrantzitsua da **izena eta udalerrria** jartzea. Modu horretan, esker oneko diploma bidali ahal izango dugu ikastetxera, eta hezkuntza-elkarte osora zabaldu daiteke.

Zalantzaren bat badugu, non eta norekin konpon dezakegu?

Ikastetxeetako Programen Sailarekin harremanetan jar zaitezke, honako helbide hauen bidez:

Tel.: 91 513 05 00



diadellibro@savethechildren.org

sol.paniagua@savethechildren.org (Marisol Paniagua, programen koordinatzailea)

nieves.garcia@savethechildren.org (Nieves García, ebaluazio-teknikaria)

Eskolako haurrei Afrikako herrialde txirotuetako neska-mutilen egoera gerturatzeko dien hezkuntza-proposamena da **Solidaritatearen Aldeko Orri-Markatzaileak**, Save the Children erakundeak abian dituen haurrak bizirik irauteko proiektuetarako funtsak lortzeko eta haurren eskubideak ezagutzeko, gida honetan aurkezten diren proposamen didaktikoen bidez.

Laguntzaileak:

TOURLINE[®]
EXPRESS
Como si lo llevaras tú mismo



**BIZIRIK IRAUN
IKASI
BABESTUTA IZAN**



Save the Children